

Korrontea ez dabil. Zer egin?

Hiztegia


zirkuitu

ekai eroale

ekai isolatzaile

korronte

harizpi



Abiapuntua

Zirkuitu bat muntatua da, baina une batean hari bat hautsi da. Korrontea pasa dadin zer egin?

Hipotesiak

Ikasleak uzten dira galdeari erantzutera. Hipotesiak egin arau, idazten dituzte.

Egiaztatuko duen jarduera

Aterabideak egiaztatu behar dituzte. Hortako taldetan emanen dira. Talde bakoitzak izanen du zirkuitua bere parte hutsarekin. Ikasleek ekarriko dute zirkuituan loturaren kausitzeko ekaia.

Guzien buruan zer?

Ikasleak utziko dira ondorioen aurkitzera eta aburuen sailkatzera. Ondotik eskeman agertzen den taula honen antzekoa egin eta beteko dute. Ekai eroalearen eta isolatzailearen irizpidea sartuko da.

	plastikokia	burdinkia	zura	ura	beste
eroale					
isolatzaile					